

OLEŔKI - I

¡ITXAŔTU, EUZKO-ALABEA!

UTARSU

Ortzia garbi ta oztin
dakusku, sofekaldian
argi gofi biguntxuba
zabalduten asi da.
¡Itxaŕtu, euzko-alabea;
jagi, ba, emakumia!

Euzkadi, geure aberija
da aŕatzaren jopuba.
Oñartian, ilunpetan,
danok lo egon gara ta,
bere negar, zotin, oyu
mingotzak, entzun baga.

Sabin, geure neba onak,
lenengua, entzun eban
Euzkadi urgazi eske
eifen euskun diafa:
diafa entzun eta zutik
bera aldezen, jagi zan.

Sabin jafatxen, edonun,
asi dira euzko-erijan,
aberijaren katiak
astinduten euzkuak.
Ugaŕtuta dagoz eta
bein apuŕtuko dira.

¿Eta zu ondiño lo zagoz,
ene aizta kufuna?
¿etzazu, ba, ondiño itxaŕtu
lanaren zarateak?
¡Itxaŕtu euzko alabea,
jagi, ba, emakumia!

Umia, gexorik ba'dau,
osatzeko ixaten da
osagaririk onena,
amaren maŕtasuna;
bafa emakumen bijotzak,
gaizkatzeko aberija.

Geure goiko Jaun onari
egin otoi, euzkeraz,
eskatu, Euzkadi'rentzako
betiko azkatasuna,
geure Afa bigun onak
entzungo dautzube ta.

Zeure odolaz azifako
seme txiki polifak,
seaskan, lo samuŕkiro,
eifen daun biŕartian,
abestu oleŕki aberkoyak
euzko-abesti gozuak.

Semiaren bijotzian
txikija dan aŕtian
erein Euzkadi'rentzako
azkatasunen naya,
batera Jaungoikua'ren
maŕtasun deunagaz.

Umia eingo da gixona,
azija, landarea,
ta ixango da, bai, gogofa
atzeratzen eztana
erijotza ikusi aŕen,
Euzkadi alde z eginda.

Zuk josiriko ikufiña
zuri-gofi-oflegija,
Josu ta Deun Ander'en
gurutzak daukana,
egun baten, mendi goyan,
egongo da zibuka.

Zuk aziŕako semiak,
zuk eindako ikufiñak
loŕtu-iragariko dabe
Euzkadi-azkatasuna
¡Itxaŕtu, euzko-alabea;
jagi, ba, emakumia!